

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2015eko MARTXOAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko martxoaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
*Karlos Irazu Muñoa*  
*Jon Tejeria Otermin*

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga  
...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**  
- **2015eko otsailaren 11an egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larrunbide baserriko etxe aurreko soroan hodi bat pasatzeko obra baimena eskaera, S.U.**
- 4. 2014ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.**
- 5. XII. Aiztondo Klasikoa "Patxi Alkorta memoriale"-ri 2015 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 6. I.Z. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Y.P. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Gabonetako errondan ateratako ordezkariak egindako eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 9. Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 10. Beobidegain 17 eskubian egindako eskaileretan itxitura bat egiteko baimena eskaera, I.A. eta O.U.**
- 11. Belarmendi bidez kontratatutako langileek, Larraulgo herrian egin beharko duten lanen azterketa, hala bada.**
- 12. A.G. jaunak eginiko eskaeraren azterketaren jarraipena, hala bada.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

13. 2015 ekitaldirako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala bada.
14. 2015eko maiatzaren 24ean ospatuko diren Udal Hauteskundeak direla eta, egutegiaren berri ematea, hala bada.
15. Fakturak eta ordainketak.
16. Beste batzuk.
17. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2015 urteko otsailaren 11ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### BIGARREN PUNTUA

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

08/2015 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 1ekoa, Indarraldia amaitu delako biztanleriaren udal erroldatik baja ematea europar batasunetik kanpoko jatorria duten pertsonen, egoitza iraunkorrerako baimenik ez dutenei, erroldatu zirenetik bi urte igaro ondoren beren inskripzioa berri ez dutelako, ebazten duena.

09/2015 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 2koa, Larraulgo Udalaren 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.


### HIRUGARREN PUNTUA

#### **LARRUNBIDE BASERRIKO ETXE AURREKO SOROAN HODI BAT PASATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, S.U.**

*Une honetan, arratsaldeko 19.50 orduetan, Jon Tejeria zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Ikusirik S.U. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Larraunbide baserriko etxe aurreko soroan ur kalteak eragozteko lanak egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Eba Erkizia Brion Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### “LARRAULGO LARRUNBIDE BASERRIKO ETXE AURREKO SOROAN UR KALTEAK ERAGOZTEKO LANEN ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*S.U.J.jaunak, Larraulgo Larrunbide baserriaren aurrean dagoen soroan ur kalteak eragozteko lanak egiteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen deskribapena, bi argazki eta aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Aurkeztutako eskarian, eta euri ur pilaketak egiten dituen kalteak ekiditeko, gaur egungo hodia beste hodi uzkurto batez 35 metro luzatu nahi dutela esaten da. Lan hauen aurrekontua 1.025€ da(BEZ-a gabe).*

*Larrunbide baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua daago, bereziki D20 produkzio zonaldean. Larraulgo araudiaren arabera, mota honetako lanek udal baimena behar dute.*

*Konponketa hau baserriaren inguruko hobekuntza bat bezala ulertu daitekeenez, egokia izango da udal baimena ematea.*

*Dena den, inguruko lurren ezaugarriak ez aldatzeko, lursailaren iragazkortasuna zainduko da.*

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: S.U. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Larrunbide baserriko etxe aurreko soroan ur kalteak eragozteko gaur egungo hodia beste hodi uzkurto batez 35metro luzatzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

**2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Idazkari-kontuhartzaileak 2015/09 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2014 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.


### 09/2015 DEKRETUA

Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehen.**- Udal honen 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2014-12-31n:		64.412,45
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2014-12-31n:		8.249,59
Aurrekontuko zordunak :	7.985,29	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	264,30	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n:		27.932,67
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	14.202,05	
Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	13.730,62	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		44.729,37
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		44.729,37
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	44.729,37
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	29.033,01
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-2.051,14
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	26.981,87
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	29.911,85
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	11.031,29
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	40.943,14

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.**- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.


### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **XII. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”ri 2015 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XII. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” aurrekontua bidali duela, guztira 20.000 eurotakoa dena, datorren martxoaren 8an ospatuko dena. Larraulgo Udalarari 639,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 639,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2015 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

### SEIGARREN PUNTUA

#### **I.Z.ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

*Une honetan, arratsaldeko 20.00 orduetan, Karlos Irazu zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*

Ikusirik, I.Z. andreak eginiko eskaera, kaltetuak izan diren beste bizilagunen babesarekin, non Larrunbide baserrietara doan bidegurutzean zegoen kontenedorea kendu egin zuela Larraulgo Udalak eta berriro jartzeko eskaera egiten du, horretarako hainbat azalpen ematen dituelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larrunbide baserrietara doan bidegurutzean, hondakin errefuxak botatzeko giltzadun kontainer txiki bat jartzea. Ondorengo egunetan jarriko dena eta sistemaren berri emango zaiena.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z. andreak ematea.


### ZAZPIGARREN PUNTUA

#### **Y.P. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Y.P. andreak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*“Y.P.M. .../..ante Ud. me presento a solicitar una subvención para el establecimiento que regento en merito a lo siguiente:*

- 1. Desde el mes de septiembre del año 2012 exploto el bar restaurante en este pueblo según surge del contrato suscrito entre la compareciente y ese organismo.*
- 2. Del referido contrato surge la obligación para esta parte de prestar el servicio de comedor a los niños pertenecientes a la escuela que funciona en el mencionado pueblo.*
- 3. Asimismo se me impone la obligación de dar los menús escolares en el comedor para estar los niños aislados del público.*
- 4. En virtud que este establecimiento tiene gastos indirectos ocasionados al prestar el referido servicio de comedor, a saber: luz, agua, enseres del baño, limpieza y el importante consumo de gas durante los meses de otoño-invierno; gastos que estarían*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*absorbidos por la escuela en el caso que el comedor funcionara en ese lugar, es la compareciente la que tiene que asumir el costo.*

5. *En días escolares hay que encender los radiadores de gas dos horas antes de la llegada de los niños para poder alcanzar una mínima temperatura en el comedor que fue estipulado para dar las comidas. Téngase presente que solo asisten 6 niños diariamente por lo que el costo de gas es sumamente elevado en comparación con el ingreso mensual de los referidos menús.*

*Por todo lo expuesto, es que solicito una subvención o la revisión del alquiler con el objeto de poder paliar los gastos indirectos que surgen detallados del presente escrito.*

*Sin más y a la espera de una resolución favorable, saluda a vosotros muy atentamente,*

*Y.P.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Y.P. andreak eginiko eskaera onestu eta ordaintzen duen errentatik 50 euro jeistea. Erabaki hau 2015 urteko martxotik aurrera izango du eragina.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Y.P. andreari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **GABONETAKO ERRONDAN ATERATAKO ORDEZKARIEK EGINDAKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik, gabonetako errondan ateratako ordezkariak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:


*“Larraulgo Udal-taldeari:*

*2014ko abenduaren 18an, osteguna, Larraulgo Kultur Batzordeak dei egindako bileran ondorengoa adostu zen:*

*Gabonetako errondan jasotako dirua udaletxeari ematea ondorengo bi jardueretako:*

- 1. Larraulgo Zabaleta baserri ondoko Haur Parkea eraberritzeko.*
- 2. Larraulgo Urbetz plazako haur parkean, orokorrean itzala sortzeko zuhaitzak landatzea, batik bat, zirkulu erdia eginez dagoen banku luzeari itzala emateko. Era berean, plaza bereko berdegunean, mahai eta aulki batzuk, pic-nic modukoak, ezartzea.*

*Jarduera hauek 2015eko udan prest egoteko beharraz hitz egin zen eta aurrera eramateko, behar izanez gero, auzo lanean egiteko aukera aipatu zen baita ere.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Jasotako diru kantitatea 516,51 €koa izan zen eta abenduaren 24ean bertan Xabier Mujika alkateari eman zitzaion.*

*Jarduera hauek bideragarriak izango direlakoan,*

*Zuen erantzunaren zain.*

*Bileran izandakoen ordezkariak”*

Batzarkide artean gaia sakonki aztertzen da. Bakoitzak bere ekarpenak eginaz.

Irazu zinegotziak dio Udalak dirua hartu dezala eta ahal duen neurrian gastatu, eskaeran agertzen diren proiektuetan alegia.

Alkateak ondoren dio, Parke zaharrean urtero hautsita dauden jostailuak saiatzeko direla konpontzen, baina parkea eraberritzeko inbertsio handia egin behar dela, homologatua izan dadin, eta parkea Urbeltz auzoan dagoena dela. Bestetik dio Urbeltz auzoan kokatuta dagoen parkean itzala emateko zuhaitzak jartzea, parkeari itzala emango dion zuhaitzik ez dagoela eta zaila dela dagoen berdegunean zuhaitzak landatzea eta hauek haztea, ikusi gaur egun daudenak, eta azkenik *pic-nic* egiteko mahaia eta aulkiak jartzearena, Udaletxe atzean jarri direla eta parkean jartzeko toki aproposik ez dagoela. Horregatik, proposatzen du dirua bueltatzea eta beste zerbaitetan gastatu dezaten, proposaturiko proiektuak ez direlako bideragarriak.

Jauregi zinegotzia alkateak eginiko proposamenarekin ados azaltzen da.

Tejeria zinegotziak azaltzen du, Udala ez bada kapaza erabakirik hartzeko dirua nola gastatu, dirua bueltatzearekin ados dagoela.

Usandizaga zinegotziak azaltzen du ados dagoela dirua bueltatzearekin eta Kultur batzordeak erabakitzen badu dirua gastatu nahi duela zuhaitz batzuk aldatzen, Udalaren baimena izatea.

Azkenik, Aranzabal zinegotziak azaltzen du, Kulturaren gastatu beharko zela ateratako dirua.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gabonetako errondan ateratako dirua bueltatzea, beste zerbaitetan gastatu dezaten. Udalak ez duelako ikusten proposatzen diren proiektuak bideragarriak direla.

BIGARRENA: Erabaki honen berri gabonetako errondan ateratako ordezkariari ematea.





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2015 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzeko eskaera kontutan hartzea, eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENGOA.- Larraulgo Udalak, 2015 urtean Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

**HAMARGARREN PUNTUA**

**BEOBIDEGAIN 17 ESKUBIAN EGINDAKO ESKAILERETAN ITXITURA BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA, I.A. ETA O.U.**

Ikusirik I.A. eta O.U. jaun/andreak eginiko eskaera, non Beobidegain 17 eskubian egindako eskailerak legezatzeko obra baimena eta eskaileretan itxitura bat egiteko obra baimena eskaera egiten duten.

Ikusirik, eskaileraren argazki bat ekarri dutela eta behe aldean egin nahi duten itxitura aipaturiko argazkian marraztu dutela. Azken honen ezaugarriak ondorengoak izanik:


*“Itxiturak eskaileraren itxitura bera izango du, goitik beherako barrak izango ditu eta materiala eskaileraren berdina izango da.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: I.A. eta O.U. jaun/andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Beobidegain 17 eskubian egindako eskaileraren legeztapen baimena ematea.

BIGARRENA: I.A. eta O.U. jaun/andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Beobidegain 17 eskubian egindako eskaileraren behe aldean itxitura bat egiteko obra baimena ematea, aurkeztutako idatzian eta argazkian ezartzen diren ezaugarriak errespetatuz.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea. Horretarako egin dituen eta egin behar dituen lanen aurrekontua aurkeztu beharko duelarik Udaletxe honetan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri I.A. eta O.U. jaun/andreari ematea.

### **HAMAİKAGARREN PUNTUA**

#### **BELARMENDI BIDEZ KONTRATUTAKO LANGILEEK, LARRAULGO HERRIAN EGIN BEHARKO DUTEN LANEN AZTERKETA, HALA BADA**

Alkate-Lehendakariak batzarkideei berri ematen die aste santuak baino lehen, martxoan zehar Belarmendi bidez kontratatutako hiru langileak etorriko direla aste betez.

Egin beharko duten lanei buruz, proposatzen da, kunetak garbitzen badagoela lana beraz lan hori egiten jarriko dituztela. Batzarkideak proposamen honekin ados agertzen direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Belarmendi bidez kontratatutako langileak, Larraulgo herriko kunetak garbitzen jartzea.


### **HAMABIGARREN PUNTUA**

#### **A.G. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETAREN JARRAIPENA, HALA BADA**

Ikusirik A.G. jaunak eginiko eskaera, non 2015 eko urtarrilaren 15ean izandako Udalbatzarrean, Goieneta-Goena baserrikoek bi langa kendu behar zutela erabakia hartu zuen, kexa bat medio zela, herri bideak irekita egon behar zutela arrazoituz.

A.G. jaunak bere eskaeran aditzera ematen du, aipaturiko bi langak kentzeko prest dagoela, herri guztian dauden herribideetan dauden langa guztiak kentzen badira, beraz Larraulgo herrian dauden herribideetako langa guztiak kentzeko eskaera egiten du.

Ikusirik, 2015eko otsailaren 11an izandako Udalbatzarrean, erabaki zela, “ A.G. eta J.M.A. jaunekin hitzegitea, Goieneta –Goena eta Goieneta-bitarte azpian dauden bi langak sortu duten arazoa dela eta, konponbide batetara iristeko. Ondoren, hurrengo Udalbatzan bi alderdiekin izandako bileraren berri emango da. Bitartean 2015eko urtarrilaren 15ean egindako Udalbatzak hartutako erabakia, hau da, Goieneta –Goena



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

eta Goieneta-bitarte azpian dauden bi langak kentzeko erabakia, hurrengo Udalbatzararte atzeratuta geldituko da.”

Ikusirik J.M.A. jaunari proposatu zitzaiola A.G. jaunak aipaturiko bi langak berritu eta erres irekitzen zirela jarriko zituela.

Ikusirik J.M.A. jaunak ez duela onartu A.G. jaunak eginiko proposamena, bi langak kentzeko eskaerarekin jarraitzen duelarik.

Batzarkideen artean luzez eztaibatzen da. A.G. jaunak eginiko eskaera aurrera jarraitzen bada, zein diren herri bideak eta zein ez diren ziurtatzeko arazoa etorriko delarik.

Alkate jaunak proposatzen du A.G. jaunak eginiko eskaera betetzea. Batzarkideak proposamen hau bideragarria ez dela pentsatzen dute, arazo asko sortuko dituelarik.

Tejeria zinegotziak ondoren dio eskaera oso orokorra dela, beraz, oraingoz egondako kexan, hau da, bi langak kentzea proposatzen du eta ondoren kexa konkretuak egiten badira aztertuko direla. Proposamen honekin Irazu zinegotzia ados azaltzen delarik.

Usandizaga zinegotziak dio herri bideak irekita egon behar direla. Aranzabal zinegotzia ere ados azaltzen delarik proposamen honekin.

Jauregi zinegotziak proposatzen du, langak itxita daudenean oinezkoentzat ondoan paso egoki bat egon beharko dela.

Batzarkide artean ados ez direnez jartzen proposamen desberdinak azaldu direlako, batetik, Alkateak eginiko proposamenarekin batzarkideak ados ez dira azaltzen, Alkate jaunak berak egindako proposamena bozkatzeko du eta Tejeria zinegotziak eginiko proposamena bozkatzeko da, , ondorengo delarik emaitza:

Aldeko botuak: 5 (Tejeria, Irazu, Usandizaga, Aranzabal eta Jauregi zinegotziak)


Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoaz, ondorengo

**ERABAKITZEN DU.**

**LEHENA:** Goieneta –Goena eta Goieneta-bitarte azpian dauden bi langak Kentzea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: A.G. jaunak eginiko eskaera ez onartzea. Eginiko eskaera oso orokorra delako. Beraz, eskaera konkretuak egingo baditu, hauek Udalbatzarrean aztertuak izango dira.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.G. eta J.M.A. jaunei ematea.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA**

#### **2015 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA**

Alkate jaunak 2015 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, kuota gordina 18.543,81 eurotako delarik.

Bertaratuek, aipatutako errolda fiskala azterturik, ahobatez,

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2015 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2015 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2015eko apirilaren 1etik ekainaren 1era bitartekoa izatea.

### **HAMAL AUGARREN PUNTUA**

#### **2015eko MAIATZAREN 24ean OSPATUKO DIREN UDAL HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA, EGUTEGIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**


Ikusirik datorren 2015 maiatzaren 24ean Udal hauteskundeak ospatuko direla. Prozedura guztia zehaztuaz, egutegi bat bidali dutelarik Udaletxe guztietara.

Beraz, Alkate Lehendakariak proposatzen du egutegi honen berri Larraulgo herritar guztiei ematea.

Irazu zingotziak proposatzen du, Udaletxeak deialdi bat egin dezakeela interesatuta daudenak euren artean bildu eta kandidatura sortzeko.

Aranzabal zinegotziak erantzuten dio esanez lehenik, euren taldekoekin hitz egin behar dutela eta ondoren euren artean, hitz-egingo dutela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, odorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU.

BAKARRA: Larraulgo herritarrei 2015eko maiatzaren 24ean ospatuko diren Udal hauteskundearen egutegiaren berri ematea.

### **HAMABOSTGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

AITZOL	40,60
EBA ERKIZIA	294,50
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	77,72
GARRA	303,74
ALKIZAKO UDALA	436,45
BERRI LANTEGIA	72,42
CORREOS	15,44
EUSKAL HARRIA	406,31
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	53,29
MOVISTAR	19,01
MOVISTAR	51,77
MOVISTAR	18,33

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **1.921,31** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMASEIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **16.1. I.U.M. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik I.U. andreak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*“Gipuzkoako erlezainen elkartetik talde bat sortu da, bertako erle beltza (Apis melifera iberiensis, gure ingurunerako egokiena) indartu eta bultzatu nahian.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Proiektu hau aurrera eramateko, ernalketarako lur zati bat behar dugu, hektarea bat ingurukoa, kotxez bertara iristeko moduan, bertan nukleoak (erle famili-berriak) utzi ahal izateko. Haizetik babestua bada hobe eta Adunatik 5 km-tara egotea komeniko litzateke. Proiektua 5-10 urterako ikusten dugu. Era berean, erlategi inguruko landaretza, fruta arbolak, zelaiak... aberastuko lituzkete erleek polinizazioaren eraginez, oso garrantzitsua naturarentzat.*

*Eskertuko genuke proposamen hau hausnartzea, eta baiezkoa edo ezezkoaren berri ematea.*

Agur bat,"

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: I.U.M. andreari jakitera ematea, Larraulgo Udalak ez duela terrenorik, aipaturiko proiektua martxan jartzeko.

### **16.2. KONTENEDORE BERDEEN ERABILPENAREN SISTEMAREN ALDAKETAREN AZTERKETA, HALA BADA**


Alkate jaunak batzarkideei azaltzen die, 2014ko azaroaren 26an karakterizazio bat egin zela, kontenedore berdeetara botatzen diren hondakinei buruz, eta Larraulgo herria izan dituela, Tolosaldea guztian izan diren emaitzarik okerrenak. Beraz, Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariarekin bildu ondoren sistemaz aldatu egin behar dela proposatzen du.

Alkateak egiten duen proposamena, Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak horrela jakitera eman dioenez, beste herri batzuetan ondo funtzionatzen duelako, ondorengo da:

10 familika, giltzapedun kontenedore txiki batzuk jartzea, bertara hondakin errefusak bota beharko direlarik eta herri guztian kontenedore berde bat utzi, hau ere giltzapetuta, kontenedore txikiak bertara hustutzeko. Lan hau, herri langileak burutuko du. Gaur egun egiten dituen lanekin eta burutu beharko duen azken lan honekin bere lanaldia aztertu egin beharko litzatekeela proposatzen da. Mankomunitateko kamioiak orain bezala, kontenedore berdean egongo diren hondakinak jasoko du.

Batzarkideen artean gaia aztertzen da. Irazu zinegotziak azaltzen du jendea kontzientziatzeko Udalak herritarrei gehiago informatu beharko diela, baina beste herri batzuetan proposatutako sistemak funtzionatzen badu proba egin litekeela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kontenedore berdeen erabilpenaren sistema aldatzea, hau da, 10 familia, hondakin errefusak botako diren giltzapedun kontenedore txiki batzuk jartzea. Kontenedore hauek giltzapetuta egongo den kontenedore berdera hustuko ditu herri langileak, eta kamioak kontenedore berdea hustuko du orain arte bezala. Herri guztian kontenedore berde bat bakarrik utziko delarik.

BIGARRENA: Herri langilearen lanaldia aztertuko da, lan honek suposatzen dion denboraren datuak daudenean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Larraulgo Herritar guztiei jakitera ematea.

### **HAMAZAZPIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA